


# XAPLADAK ETA IZKIRIMIRIAK



## XAPLADAK

### I

Bidean biltzen zituan belar mota batzuek eta aietzaz janaritzen zan argaltxo bat. Ura etzan bizitzia: beti naigabetsu, makaldua, bakarrik alde guzitan, belar legor batzuen zai bere biziari eutsiko bazion.

—Bai ote da ni baño doakabeorik lurbira osoan? esaten zuan ingurura begiratuaz. Arrituta gelditu zan beste beartsu bat arrek uzten zituan belar pixarrak jaten ari zala ikusi zuanean.

Ez beñere gu baño goragoari begiratu; begiratu beti gu baño beragoari eta neke aundiagoz bizi diranari.

Orduan arinduko dira gure miñak eta zoritxarrean ere zorionaren laztan biguñak alaituko gaitu.

Bakoitzak bere mailan arkitu lezake erraz zorientasuna.

### II

Irakurgaiak biyotzean ikuitzen du eta gizonak biyotzari lañeza eta litxarkeiyak ematiatik zer nai egingo luke.

Zertako lotsatu? Lotsakizuna maltzurkeria da; egin biarra, esaera bat; barrunpeko kezkek bildurgarri utsak, aurren mumua bezela; onbidia berriz buruko aize txorua. Lotsa ez baizik bere jatorriaren bixkari atsegin ematia pozgarri da. Nun edo an zorientasuna aurkitu biar da, eta atsegin ematen duan guzia da jarraigarri, txalogarri.

Au ikusitakoan ondasun azal, buztinzale, siniskor biurtuko da irakurle kazkoia.

Ez dira asmakaiak: batzutan aitzaki maitzak, beti zer edo zer ikaspide gelditzen dala ta irakurgai kaltegarriak dabiltz enpu-enpu.

Nik geigo ikasten det itxas ertzean exerita, ez enparantzako dantzari nastuen aurrean eta ala ere naiago dutela enparantzara joan esango dute? Jakiña.

### III

Irakurgai bat nolakoa dan, ala izango da irakurlien biyotza. Askok par egiten dute berexitasun au jartzian: lagun batek baño oraindik al edo indar geiago du irakurgaiak kalterako edo onerako; ori irakurgaia nolakoa dan: «Esan zaidazu norekin zabilzan eta esango dizut nor zeran» edo «esan zaidazu zer irakurtzen dezun eta esango dizut nor zeran». Gaurko gaitzaren erdia ta geiago emendik dator irakurle. Jaungoikoan ezin sinistu dutela esatia arritzekoa al da? Ba Jaungoikoaren izatia ukatzen dute irakurgai auek itz zuri eta legunki artian. Ez dago txarra auek irakurtzen dituen gaztea. Nola liteke bestela iritzi batean zegon gizona gauetik goizera arrunt aldatzea, ontasun goyenetik gaiztakerizko aitzulo sakonetaranokoan amilduz?.

Balmes jakintsuaren adimen sendokoak gutxi izan dira ala ere esaten zuan irakurgai batzuek ardura eta arreta-bildurgarri aundiz irakurtzen zituala. Bai noski!

### IV

Itxas ontzi batean zan: lanetako egiteko garaian bildu ziran ibilkari guziak.

Emakume aundizki batek lekaide (praile) bati sagar bat eskeiñi zion.

—«Eskarrikazko, esan zion lekaideak, jan zazu zedorrek, obeto artuko zaitu ta».

—Ni, zer ba?

—Ebari ere sagarra jan zuanean begiak iriki emen zitzaizkion eta orduan lotsa lotsa egin emen zan.

Geienaz ere emakume au aiña lotsatuko zan: geroztik beñepin ez emen zuan kokotzpetik bera aragi asko erakusten.

Orrelako eztenkadak beste itzaldi eta jarduerak baño indar geiago izaten dute.

Zertako alperrik orrenbeste ixtu leortu-azitzen ibili.

### V

Euskaldunen oitura onelako bat ara emen. Ainbeste ditu izan ere! Ondo ezagutzen da erraz gure oituren garbitasun eta onura; beste aldeko gizarteakin nastu geranian. Ezagututa jarraitzea litzake pozkarri, ez aztutzia zoritxarrez.

Euskeldunen oitura zarrak baztartuta ez gera jakintsuaguak gaiztuagoak baño. Ni binipin ez nago beste txakurrak zaunka egiteko gure gureak diranak ukatua.

Lengo igandian, eleizan baserritar baten onduan negon; etzuan txintik ere atera an egon zan aldi osoan ezta «Dominixticum» bat ere.

Meza bukatu zenian buruakin bi sayetzetara agur egin zuan aopian itz erdi bat esanaz.

Nere artian zer esan ote du? Beste batian alaxe zer edo zer igarri nuen eta galdetu biar ziot ba esan nuen.

—Zerbait esan edo egiten al duzu aizkidia, meza bukatzian? galdetu nion bertantxe; eta parra murriz pixka bat lotsatuaz bezela esan ziran.

—Bai.

—Zer ba?

—Ezkarrikazko... Agur bat bezala.

Oso ederki dago.

## IZKIRIMIRIAK

✎ Permin oñetakogileak zer jantzirik etzeukan, eta antolatzeko zeuzkan oñetako batzuek jantzi zituan. Bidean zijuala, auen jabea topo egin zuan:

—Agur aizkidea.

—Kaxo Permin! Ondo al dijoaz oñetako oiek edo...?

—Badijoaz aurrera, badijoaz.

✎ Bi gizon aingiretara joan ziran eta:

—Aizak i; potu uts ortan aingirik badagon ikuszak.

—Etzegok.

—¿Nola dakik?

—Edorrek esan dekelako.

✎ Errotako Antonio gizon ona zan, baña itzetik ortzera parragarrikeri asko botatzen zituan.

—Bordako itzaya il omen dek, Anton.

—Gixaaxoa! Jaunak osasuna diola. Baleikek gu lenagotik joatea, baña ori joandek. Il guziak eriotza zor!

✎ Beste batean oso asarre zegoan gure Anton.

—Orain ere zerbait gertatzen zaik iri.

—Ala dek ba. Ezpartin zarrak nekazkiela uste nian eta berriak etxean utzi ta etorri nauk.

Atton bat poxpoluak ezin bilaturik zebilen. Ilun xamar zegon eta etzituan arkitzen. Azkenik, aspertuta, pixtu zuan surtan argi mutur bat eta an zebilen bere arrekin jo batera eta bestera ero bat egiñik.

—Zer gabiltza, attona?

—Ementxe gizona, pipa pixteko poxpolo petral batzuen bila.

Olentzero, txakurrak eguzkitara joatean aurrenengo lana zer egiten dik?

—Zaunka.

—¡Bai zera. Itzala.

—Nik esaten detana esaten badek, au iretzako.

—Asi...

—Krixkitin.

—Krixkitin.

—Kraxketin.

—Kraxketin.

—Arrosa.

—Arrosa.

—¿Ez dakikela nola bukatzen dan?

—Krabelin.

—Galdu dek.

Bein batean Txomin oñetakoak egin-aztera joan zan, eta oskitegira (zategira) etorriko zan bezin aguro, berriz laisterka irten zan.

—Nora zoaz, Txomin?

—Bereala etorriko naiz. Arrane, arranea! Oñan neurria etxean aztuta etorri ez naiz ba?

Zoaz, ume, jostunangana, eta esan zaiozu Prantxiska'ri pixkanaka ordaintzeko soñeko bat erosi nai niokela, eta ia noiz egongo dan bakarrik, iñork jakiterik ez nukela nai-ta.

Sartu zan jostundegian umetxoa, eta ia ia jende tartean etzan ageri.

—Zer nai dezu, ume?

—Amak esan dit pixkanaka ordaintzeko soñeko bat artu nai liokela, eta ia noiz egongo dan bakarrik, iñork jakiterik ez lukela nai-ta.

—Esan zaiozu amari orain etorrita berdin dala.

- ✎ — Zertan daramayo moskorrak txoroari?  
—Txoroa gutxitan moskortzen da; baña moskorra txoratu askotan.
- ✎ —Jangabe ezin leikek ordea bizi...  
—Etzekiat, baña, ikusten danez, jan gabe iñor gutxi iltzen dek; janta berriz, danak.
- ✎ Ikasle batek bere aitak bidalitako txanpon guziak aitu ta gero idatzi zuan etxera esanaz: «Aita, txanponan berri ematen ziran eskutitz ura ez det artu».  
—«Oraindik ez diat bidaldu»— erantzun zion aitak oartu zedin.
- ✎ —Tira, jokatuko, diat i trenez ta ni asto gañean zein lenago Usurbilara iritxi.  
—Bartoloneko ardantegira e?  
—Bai. Ik artzik bi ziñaldari (testigo) eta nik beste bi.  
—Jetxi zan bat trenetik eta Bartolonera iritxi zanean an zegon bestea astoa-  
rekin zai jarrita.  
—Oi, noiz etorri aiz?  
—I baño pixka bat lentxeago.  
Baña asto gañean?  
—Bai.ba.  
—Ez diat sinisten.  
—Galdaiek auei. (ziñaldariari).  
—Bai, bai, i etorri trenean bertan etorri dek  
\_Asto gañean ordea.  
—A, ori bai.

TOMAS GARBIZU SALABERRIA «Tege»  
Euskal Esnalea XIV - 236.